

Garikoitz Goikoetxea
**Baikortasun
puntu bat
hartzeko
garaia**



ataria

2016-12-02
590.zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus

Kultura
*Tolosaldeak ere bere
aletxo jarriko du
gaur hasiko den
Durangoko Azokan*

Euskara
*9. Galtzakomik
Komiki Lehiaketako
sari nagusia, Javi
Navarrentzat*



BINAI

ODONTOLOGIA ZENTROA

Irún

Jose Eguino, 2 · 1 A
943 612 831

Tolosa

Arostegieta, 6 BIS · 1
943 672 999

www.clinicabinai.com

Zure hortzen osasuna
eskurik onenean



- ✓ **Inplanteak**
- ✓ **Ortodontzia**
- ✓ **Hortzetako estetika**
- ✓ **Protesien laborategia**
- ✓ **PADI-Osakidetza**



Tolosako Babarruna
GOZA ITZAZU



www.tolosakobabarruna.eus

Tel.: 943 65 02 53

Ezkutukoak

Astegun eta asteburu, dozena erdi egunkari-
ren webguneei bisita egiten die lagun batek.
Hemengoak irakurtzen ditu gehienbat, bai-
na baita Espainiakoak ere. *Libertad Digital*-
en denbora dezente pasatzen
du, Federico Jimenez Losan-
tosen egunkarian. Askotan gomendatu dit
sartzeko, albisteetako komentarioak ira-
kurtzeko. Albisteen eta iritzi artikuluen il-
doa ikusita, zer espero daiteke iruzkinez...
Norberak froga dezala.

Hala ere, urrutiegi joatea da *Libertad Di-
gital* aipatzea. Beste atari askotan bezala,
Berria-n ere badago iruzkinak egiteko au-
kera. Komentario gutxi egoten dira norma-
lean. Azken egunetan, ordea, albiste ba-
tzuek jaso dituzte dezente, Nekane Ba-
lluerka EHUko errektore berriaren
aukeraketak eta hura hautatzeko bozketa
egunean Leioan izandako istiluek, adibidez.

Baina egun horren biharamunean, Indarkeria Matxis-
taren Kontrako Eguna zen. Beste artikulua batek igo zuen
asteko iruzkinen marka: *Nafarroako Hitza*-n argitaratu-
tako eta *Berria*-ren webgunera ekarritako *Beren bidezko
defentsan* erreportajeak. Horretan, autodefentsa feminis-
tari buruzko gogoeta bat egiten zuten hainbat taldek. In-

**Balio al du ezkutukoak eta
anonimoak agerian uzteak?
Alferrikakoa da azalekoari hautsa
kentzea oinarria ustela badago**

darkeria matxista, mugimendu feminista edo ahaldun-
tzea aipatzen diren bakoitzean gertatzen den bezala, ez-
tabaida sortu zen albistearen azpiko lerroetan. Eta ezta-
baida horiek sortzen diren gehienetan bezala, emakume-
en kontrako iritziak azaleratu ziren
nabarmen, askori izen anonimoak ematen
dien ausardiarekin. Mezu bat: «Emakume-
ak beti protestan: txuria denean, txuria de-
lako, eta beltza denean, beltza delako».

«Ezkutuko haserretuez» hitz egin du
aurten nazioarteko gaurkotasan minte-
gian Jesus Torquemada adituak, Tolosan.
Esaten zuenez, errazagoa da konforme ez
dauden ezkertiarrek euren iritzia azaltzea,
kalera ateratzea, M15 mugimenduan egin
zuten bezala. Eskuinekoen «haserrea», al-
diz, ez da neurtzen hain erraza. Adibide
modura, bi gertaera: Trumpen garaipena
Ameriketako Estatu Batuetan eta Erresu-

ma Batuko *bretxit*-a. Inkestek huts egin zuten. AEBetako
inkestetan, ezkutuan zegoen langile klase zuriaren hase-
rrea zenbaterainokoa zen, eta Erresuma Batuan, adineko-
en artean, «garai bateko inperioaren nostalgia»: 24 urtetik
beherako gazteen %64 geratzearen alde agertu ziren, eta
65 urtetik gorakoen %58 ospa egitearen alde.

Frantzia hurrengo urtean daukate presidentetzara-
ko hauteskundeak, eta inkestagileek adi jokatu beharko
dutela dio Torquemadak, Marine Le Penen aldeko botoa
neurtzeko. Baina neurtzeak balio al du? Balio al du ez-
kutukoak eta anonimoak agerian uzteak? Alferrikakoa da
azalekoari hautsa kentzea oinarria ustela badago. Fran-
tzian, AEBetan, Losantosenan eta gurean.



MAITE ALUSTIZA
BERRIA-KO KAZETARIA

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Naiara Roldan de Aranguiz
KUDEATZAILEA: Jexux Murua **TELEFONOA:** 943 655695 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus
IRRATIA: 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIAk ez du bere gain hartzen aldi-zikari-
adierazitako esanen etariltzen erantzukizunik.

tolosaldeko
ataria

TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:

BERTAKO
HEDABIDEAK



galtzaundi

berria

Txosarre

Tolosaldeko gizarte eragileak



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 77 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Igor Agirre



Berdintasun sailako proiektua da 'Berdintasuna oparitzeko gida' eskuliburuua. ATARIA

Bertso-paperak eta bertso jarriak, euskarari

Euskararen Egunean, abenduaren 3an, banatuko dira Pello Mari Otaño bertso-paper lehiaketako sariak

Erredakzioa

Irabazleak dagoeneko ezagunak dira ere, larunbat afalostea bitarte ez dituzte III. Pello Mari Otaño bertso-paper lehiaketako irabazleek euren sariak jasoko. Aurretik gainera, giroa bertze aldera bertso jarrien afaria izango da: *Bertso berriak, geronek jarriak*.

Afarirako txartelak dagoeneko salgai daude 20 euroren truke, afaria egingo den Zizurkilgo Plaza Etxeberri jatetxean, Iriarte jatetxean, harituz.bzt@gmail.com helbidean edo 695751450 whatsapp zenbakian.

Bertso-paper lehiaketa arrakastatsua izan da parte hartzeari begira, Harituzeko ordezkariak azaldu bezala. Guztira 52 lan aurkeztu dira -24 helduen mailan, 7 gazteenean eta 31 gaztetxoenean-.

Saridunei erreparatuta berriz, Amaia Agirrek irabazi du helduen maila *Beti geratuko zaigu Paris* lanarekin eta bigarren postua Asier Azpirozentzat izan da *Enkarguz* lanarekin. Gazteen mailan Julene Iturbe eta Ane Beloki eta gaztetxoenean Alex Agirre eta Oinatz Otegi izan dira, lehen eta bigarren sailkatuak, hurrenez hurren, maila bakoitzean.

Opari batean bildutako berdintasuna

Tolosako Udalak 'Berdintasuna oparitzeko gida' eskuliburuaren 5.000 ale banatuko ditu ikastetxe eta leku publikoetan

Erredakzioa

Eguberriak ate joka ditugu eta ezinbestean Olentzerori gutuna prest uzteko egunak ere gainean dira. Opari zerrenda hori osatzeko orduan eskatzaileek betaurreko moreak janzteko proposamena luzatu du Tolosako Udaleko Berdintasun sailak.

Horretarako, udaleko beste sail batzuekin elkarlanean, *Berdintasuna oparitzeko gida* prestatu du, sentsibilizazio kanpaina batekin batera. Guztira, 5.000 ale banatuko dira ikastetxetan -Hirukide, Laskorain eta Samaniego; haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan- eta leku publikoetan -jostailu dendak, liburu dendak, kultur etxean...-. Eta gida be-

raren kaleratzearekin, «pertsonek helduen artean hausnarketa bultzatzea, zer oparitzen duten eta opari horiek zer eragin izan dezaketen neska-mutilen jokabide, sentimendu eta roletan nahiz bizitza pertsonaleko, familiako eta laneko proiektu eta itxaropentan».

Maite Ruiz de Eguilaz berdintasun zinegotziak adierazi bezala, ohituren edo publikitatearen eraginez, jokatzeko opariak aukeratzeko orduan: «Beharbada noizbait inbidiaz begiratu diogu arrebaren, lagunaren edo beste inoren opariari, ezin izan dugulako opari horrekin jolastu, ez zegokiolako gure sexuari». Honela gida honek tankerako jokaerekin apurtzeko bide bat ere izan nahi du: «Bazterketa egoerak saihestea eta argitalpenean jasotako gogoeta, aholku eta liburu zerrenda baten bidez herritarrak kontzientziatzea du helburu, gizartearen etorkizuna berdintasunean oinarritu dadin».

tolosaldeko
ataria

ataria irratia ataria internet ataria prentsa

Zure iragarkia jartzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.info

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Indarkeria aztertzeko bi zita datozen egunotan

Tolosa. Datozen egunotan indarkeria aztergai izango dituzten bi hitzaldi izango dira Tolosan. Batek, abenduaren 3an, larunbatean, Lodifobiaren inguruko hitzaldia izango da 18:30ean Abastosen, Iruñe Alfonsoren eskutik. Bestetik, abenduaren 9an, indarkera aztertzeko beste zirrikitu bat landuko da, *Emakumea eta kartzela* izango da orduko hitzaldiaren izenburua. Elena Urdangarin eta Gotzone Ijurko izango dira hizlariak 18:30ean, kultur etxean.

‘Egia bide, askatasuna amets’

Amasa-Villabona. Bi billabonatarek omenaldia jasoko dute abenduaren 4an, 12:30ean, Otsabin. Migel Zalakain Odriozola eta Mikel Zalakain Esain dira. Ekitaldia *Egia bide, askatasuna amets* leloari eutsiz eramango da aurrera.

Merkatu solidarioa egingo dute abenduaren 13tik 18ra

Ibarra. Ekuador, Honduras eta Indiarako laguntza lortzeko merkatu solidarioa egingo dute Ibarrik Misio Taldeak antolatuta. Herritarrei deia egin diete materialak oparitzeko, merkatuan saldu ahal izateko. Horrela, abenduaren 9an, 10ean, 11n eta 12an, 17:00etatik 20:30etara opariak eramateko aukera egongo da. 650 416 949 eta 678 844 529 telefono zenbakietara ere dei daiteke. 2095 5043 97 1062974919 kontu korrante zenbakian ere ekarpen ekonomikoa egingo da aukera dago.

Pirritx, Porrotx eta Marimotxten emanaldia

Ibarra. Urtarrilaren 20an, Pirritx, Porrotx eta Marimotxten emanaldia izango da Ibarako kiroldetegian, 18:00etan, Alurr Dantzaz Taldeak antolatuta. Sarrerak salgai daude Ibarren, Lurdes liburu dendan, Zubiaburue tabernan, Goxobi gozoki dendan eta Ogiberrin. Tolosan, berriaz, Raku, Orbela eta Ikatza tabernetan eta Triangulo kafetegian.



HURRENGO URTEAN ERREPIKATZEKO GOGOZ

Bizilagunak egitasmoaren ekitaldi nagusia izan zen larunbatean Donostiako Victoria Eugeniaren. Bertan izan ziren Tolosaldeko hamar bazkarietan parte hartu duten hainbat familia eta dinamizatzaile. Familia argazkia ateratzeko aprobetxatu zuten. ATARIA



PINTADEI EUSKARA DARIE

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, Galtzaundi euskara taldeak semaforoetako kaxak apaindu ditu bigarren urtez, ikasleekin. Sarri entzun ohi da irudi batek askoz ere pisu handiagoa izan dezakeela, zenbait hitzek baino eta, baieztape horren defentsari helduta, Galtzaundi euskara taldeak biak uztartu ditu: hitzak eta irudiak. ATARIA

ataria DISEINATZAILE GRAFIKOA BEHAR DU

BEHARREZKOA

- Diseinu grafikoaren inguruko ikasketak izatea.
- QuarkXPress, Illustrator eta Photoshop programa informatikoak menderatzea.
- Euskalduna.

LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK

- Bi urteko lan utzialdia betetzeko da.
- Egunkariaren zierrearen ardura.
- Maketazaila eta produkzio editorea.


www.ataria.eus • 107.6 fm
San Esteban 20, 20400 TOLOSA
943-65 56 95 • tkt@ataria.eus

Interesatuak bidali dizlazu curriculum, aurkezpen-gutuna, portfolio digitala eta bestelako jakingarriak tkt@ataria.eus helbidera abenduaren 18a baino lehen.



28 URTEREN OSTEAN, ITXI DUTE LAPATX ZABORTEGIA

Asteazkenean itxi zituen atek Lapatx zaborte-
giak. 28 urtez milloika tona errefus
jaso ditu Azpeitiko Elosiaga auzoko zabor-
tegiak. Aurrerantzean ez dute hondakinik
jasoko han, eta bertara bideratzen zen za-
borra, tartean Bidania-Goiazitik, Merueloko
(Kantabria, Espainia) zabortegira eramango
dute urtea bukatu bitartean. Itxi baino lehen
agerraldia egin zuten Aitor Bereziartua
Urola Erdiko Mankomunitateko lehendakari
eta Azpeitiko Udaleko zinegotziak, Eneko
Etxeberria Azpeitiko alkateak, Xeberro Agi-
rretxe Errezilgo alkateak eta Erramun Goi-
koetxea Bidania-Goiazko alkateak. **JULENE
FRANTZESENA/UROLA KOSTAKO HITZA**

Irisgarritasunari buruzko ekarpenak jaso nahi ditu udalak

06

Herritarrei egin die dealdia
gaiari buruzko ekarpenak
egiteko; horretarako azken
eguna abenduaren 9a izango da

Erredakzioa Bidania-Goiaz

Bidania-Goiazko Udalak herrigu-
nean oinezkoen irisgarritasuna-
rekin zerikusia duten arazo eta gabe-
ziak daudela azaldu du. Hori dela eta,
azken urteetan herriguneko kale eta
eraikin publikoak irisgarritasun ikus-
puntutik egokitzeko ahalegina egiten
ari dela adierazi du udalak.

Bando bat atera dute, egoerari bur-
uz udaletik duten pertzepzioa eta her-
ritarrek izan dezaketeena ezberdina
izan daitekeela azalduz. Hori horrela,
herritarren ikuspuntutik irisgarritasun
arazo eta beharrak zeintzuk diren
ezagutzeko, beraien ekarpenak jaso
nahi dituzte.

Ekarpen horiek zuzenean udaletxe-
an aurkeztu daitezke edo udala@bidania-goiaz.eus helbide elektronikora bidali daitezke. Ekarpenak egiteko azken eguna abenduaren 9a, ostirala, izango da.

GUTUNAK

HTK Film S.L.ren (Hirutek) adierazpena

HTK Film S.L. (Hirutek) enpresak
hurrengo azalpenak egin nahiko
lituzke, Tolosako Udalak aurkeztuta-
ko ekintza soziokulturaletan laguntza
zerbitzua eskaintzeko esleipenari bur-
uz komunikabideetan publikatu di-
ren berrien gain:

HTK Film S.L. (Hirutek) enpresak
ez du inongo informazio ezta tratu
pribilegiaturik jaso udaletxeko edo-
zein langileren partetik.

Informazio pribilegiatua jaso duen
enpresa bakarra Molatu Produkzioak
S.L. izan da, zilegiak ez diren moduak
erabiliz Hirutek-eko bazkide baten e-
mail kontu «pribatu» batean sartu bai-
tira, «titular eta erabiltzaile bakarra»
bazkidea bera izanez. Honetaz gain,
legez kontra lortutako informazio
hori modu manipulatu eta oker bate-
an zabaltzen ari dira, testuingurutik
kanpo gaizki ulertuak sor daitezkeen
hain zuzen ere. Mezu elektroni-
ko horietan, informazio pribatuaz,
jarduera ekonomikoez, aurrera era-
mandako ekintzez... aparte, HTK
Film S.L.-k prestatua zuen proposa-
men tekniko eta ekonomikoak zeu-
den, lehiaketan aurkeztuak izateko
prest, beraz Molatu Produkzioak S.L.-
k zuzen-zuzenean ezagutzen zuen
lehiaketan parte hartzera zihoan en-
presa baten proposamena (Hirutek-

ena). Hirutek enpresak inongo kasuan
jakin ez duen informazioa delarik.

Hau guztia delarik, entrega epea
baino lehen idatzitako proposamen
tekniko eta ekonomiko hau ondo eza-
gutzen zutela uste zuten arren, ezus-
tekoa pairatu zuten proposamenak
irekitzeko orduan. Hirutek-en propo-
samena ikusi zutenean Molatu Pro-
dukzioak S.L.-rena eta gainerako
lehiakideena baino hobe zela, Hiru-
tek-en azken proposamena ez baitzen
Molatu Produkzioak S.L.-k eskuratu-
tako mezu elektronikoetan agertzen.

Prozesuan izandako informazio
pribilegiatu bakarra lehendik aipatu-
tako hori besterik ez da izan, hain zu-
zen, Molatu Produkzioak S.L.-k esku-
ratutakoa lege eta etikaren kontra do-
azen ekintzei esker.

Korreo elektroniko honetara sartze-
ko zein bide erabili duten susmoa
badu HTK Film S.L. enpresak eta ak-
zio legalak bere menpe jasoko ditu eta
Tolosako Udalarri beharrezkoak izango
diren alegazio guztiak egingo dizkio
lehiaketa bertan behera uzteko eraba-
kia deusezta dezan, hau izanik hone-
lako tramiteak egin beharreko tokia.

Hirutek enpresak urte asko dar-
matza era zintzo eta onets batean lan-
nean profesionaltasuna eta konpro-
misoa baieztatu dezaketen udalerrri eta
instituzio askori bere zerbitzu tekniko
eta zinematografikoa eskainiz.

Adeitasunez.

HTK Film S.L. (Hirutek) Tolosa

Argazki rallya antolatu dute lehen aldiz Altzon

Jarduera igande goizean izango da, eta Olentzerotan Jakinminez kultur egitasmoari hasiera emango dio

I. Garcia Landa Altzo

Aurtengo Olentzerotan Jakinminez kultur ekimena zenbait berrietasunekin dator, eta horietako bat, hain justu, egitarauari hasiera emango diona izango da: I. Argazki Rallya. Igande honetan egingo dute, eta izen ematea gaur bertan egin daiteke liburategian eta baita jardueraren egun berean 09:00etatik 10:00etara. Kultura Batzordetik azaldu dutenez, argazki rallyarekin herritarren parte hartze aktiboa sustatu, belaunaldien arteko harremanak landu, eta irudimena eta sormena bultzatu nahi dituzte.

Rallyan nahi duten argazkilari ez profesional guztiak hartu ahal izango dute parte. Bi maila bereziko dituzte: 16 urtetik beherakoak eta 16 urtetik gorakoak. Sariei dagokionez, maila bakoitzeko lehen bi sailkatuek jasoko dituzte.

Argazkiak kamararekin zein mugikorrek atera ahal izango dira. Partaide bakoitzak hutsik dagoen memoria eramango du. Parte hartzaileek kontrol argazi bat egin beharko dute irteeran eta amaieran. Nahi diren argazki guztiak atera ahal izango dira kontrol argazkitik aurrera, baina 30 ar-

gazki soilik deskargatuko dira liburategian. Gaiei dagokionez, lau gai jorratuko dira eta irteeran ezagutaraziko zaizkie parte hartzaileei.

Rallya 13:00etan bukatuko da, eta liburategian deskargatuko dira partaide bakoitzaren 30 argazkiak, 14:00ak arte. Aurkeztu beharreko bilduma 8 argazki osatuko dute, bi argazki gai bakoitzetik. Abenduaren 15a baino lehen, argazkilari bakoitzak mezu bat bidaliko du kultura@altzo.eus helbidera, eta bertan kontroleko argazkiak eta aukeratutako 8 argazkien zenbakiak zehaztuko ditu.

Argazki guztiekin emanaldia eskainiko da udaletxeko erabilera anitzeko aretoan. Bestalde, argazki sarituak Altzoko Kultur Batzordearen esku geratuko dira eta egokia irudituz gero, erabiltzeko eskubidea izango du egilearen izena aipatuz.

Azoka, beste berritasuna

Olentzerotan Jakinminez kultur egitasmoa igandean hasiko da eta beste lau egunetan ekitaldiak izango dira, zehazki abenduaren 11, 15, 16 eta 17an. Hain justu, aurtengo beste berritasunetako bat hilaren 11n izango da: Azoka Eguna. Herritarrek ekoiztutako produktuak eta gonbidatuek ekarritakoak ikusi eta erosteko aukera izango da. Azoka goizez izango da, 10:00etatik 14:00etara; plazan ateri bada, eta a frontoian euria eginez gero.

Garikoitz Ibarluzea ez da espetxera joango, akordioa lortu ondoren

Bi urteko zigorra jarriko dio Espainiako Auzitegi Nazionalak, baina ez du kartzelara joan beharrik izango

Erredakzioa Ibarra

Joan zen astean Espainiako Poliziak atxilotu egin zuen Garikoitz Ibarluzea, Madrilen. Londrestik zetorren hegazkin batean jaitsi zenean hartu zuten atxilo, Auzitegi Nazionalako agindu bat baitzegoen. Epaileak baldintzapean aske utzi zuen atxilotu eta hurrengo egunean, eta gaur jakin da defentsak eta fiskaltzak akordioa egin dutela eta auzitegiak bi urteko zigorra jarriko diola. Aurrekaririk ez duenez, ez du presondegira joan behar harko.

Erresuma Batuko Poliziak 2010eko martxoan atxilotu zuen Ibarluzea, Londresen. 2006tik bilatze eta atxilotze agindupean zegoen, kale erasoekin lotuta. Izan ere, 2002an atxilotu zuten Tolosaldeko beste zazpi gazterekin batera. Baldintzapean aske geratu ostean, 2006an epaitu zituzten, baina Ibarluzea ez zen agertu Auzitegi Nazionalera. 1999 eta 2002 artean hainbat kale erasotan parte hartu izana egotzen diote.

Hilberriak eta urteurrenak

atarian jarrita
Goierriko eta Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Joan den astean, urte askotako bidelaguna joan zitzaigun.

Joxepo
beti izango
zaitugu gogoan

Zurekin ikasi bezala, urtez urte Porrontxoak hobetzen eta gogo betez antolatzen jarraituko dugu.
POR NARICES!!!

Porrontxo jaia eta Sudur Kultur Elkartea



«BARRIOLAREKIN BIKOTEA OSATZEA OHORE BAT DA»

JOKIN ALTUNA
PILOTARIA

Lau t'erdiko txapelketa amaitu eta hurrengo egunean aurkeztu zuten binakakoa; amezketarrak leitzarrarekin osatuko du bikotea, eta lehen partida Tolosan jokatuko dute.

Asier Imaz

Lau t'erdiko txapelketan ikasitakoa eta bizitakoa soinean hartuta, Jokin Altunak (Amezketak, 1996) binakakoari begira dago. Lehen saria jaso du amezketarrak: bere bikotekidea.

Lau t'erdiko txapelketatik zein ondorio atera duzu?

Aste oso politak bizitu ditut. Partida garrantzitsuak jokatu izan ditut, baina lehen aldia da final handi batek ematen duena ezagutzeko aukera izan dudana. 20 urterekin hori ezagutzea oso aberasgarria izan da. Finala afizioa egiten duen horietakoa izan zen, baina azkenean pena handiarekin bukatu nuen. Egun pare bat nahiko triste ibili naiz, buruari bueltak. Alferrik dela ondorioztatu dut. 21na zoazenean, partida alde batera edo bestera erortzen da, eta horri bueltak ematea alferrik da. Egindako txapelketarekin nahiko harro nago, eta denbora bat pasatzean gehiago baloratuko dudala uste dut.

Lau t'erdikoaren hasieran, maila desberdineko pilotariak zeudela ikusi zen. Alde batetik, Urrutikoe-txea, Bengoetxea eta Olaizola; tartean, zuek. Txapelketaren bilakera ikusita, lehen multzoan zaude.

Txapelketa hasieran nik ere hori ikusten nuen. Urrutikoe-xearen aurka 22-7 galdu nuenean, oraindik eta gehiago. Nahiz eta lehen mailako txapelketa izan, koska desberdinak zeuden. Txapelketa honek niretzat asko balio izan du, onenen aurka egitea badaukadala ikusi baitut. Batez ere, Bengoetxearen



A. IMAZ

aurka horrela galtzean eta Olaizolaren aurka nola jokatu nuen ikustean. Ezkurdia, Artola, Irribarria, ... pilotari mordoa dago niri irabazteko modukoak direnak, baina nire jokoa egiten baldin badut, edozeini sustoa emateko moduan nagoela ikusi dut.

Finala eta gero errestoa zenbatek gogorarazi dizute.

Pilota aukeraketan ere esan nuen, bere pilotekin sakeari erantzutea ez zela erraza izango. Partidan erabat kontzentratuta egoten saiatu nintzen, baina ez nintzen pilota horretara jartzen. Jokoan momentu batzuetan gainditu nuela uste dut, baina berak sakearen bidez tantoak nahiko azkar egiten ziz-

kidan, eta horrekin ematen zion buelta.

Azken tantoarekin ametsik egin al duzu?

Buruan buelta asko eta asko eman dizkiot. Garbi nuen ondo sakatu eta hurrengo pilotaz aprobetxatu behar nuela. Baina hankak irrist egin zidan pilota jo nuenean. *Putakeria* bat izan zen. Gero berari aukerakoa gelditu zitzaion. 21na zoazenean batzuetan gauzak ondo atera zaizkit, eta orainoan ez. Urrutikoe-xeari ere antzekoa gertatu zitzaion finalerdietan. Horrela izaten da.

Hurrengo txapelketa hastera doa, eta onena horretan pentsatzen hastea izango da.

Tristura sentsazio horrekin ezin duzu geratu. Aurre egiteko onena buruari beste motibazio batzuk jartzea da. Orain binakako txapelketarekin hasiko gara; beste ilusio bat, beste motibazio bat. Orain horretan gozatzen saiatuko gara.

Abel Barriola.

Ohore bat da niretzat berearekin jokatzea. Ikaragarritzko pilotaria izan da, eta da. Bere adinean ematen ari den maila izugarria da. Beti izan dut gogoa eta ilusioa berearekin txapelketa bat jokatzeke. Ohore bat da, eta dena ematen saiatuko gara; bikote bezala gehituz.

Txapelaren lehiari bakarrik begiratuta, agian Zabaleta edo beste atzelariren bat izango genuen buruan. Baina ondo pentsatuta, eta Barriolaren azken urteak direla kontuan hartuta, berearekin jokatze hutsa nahikoa txapela izan daiteke. Eta ezer baztertu gabe.

Ez dakizu azkenean bikotea nondik aterako den, baina irakurketa horrekin ados nago. Hasieran agian izen gehiago duten atzelariak jartzen dituzte txapelaren lehiari. Adibidez, Irribarria eta Rezusta. Gu agian ez gaude kinniela horietan, baina dena ez da hori. Pertsonalki eta profesionalki zer aporteratzen dizun ikusi behar da, eta niretzat asko ikasteko bide bat izango da Abelekin jokatzea. Ez dakit bere ibilbidea noiz bukatuko den, agian beranduago baino goizago. Baina argi dudana niretzat aukera oso ederra dela berearekin bikotea osatzearena.



OSTIRALA ABENDUAK 2

ADUNA

19:00. Esku pilota. Txulobi eta Intxurrekoen arteko partida.

ALEGIA

ELORRI PILOTALEKUA

18:30. Pilota. Intxurrekoen bost partida. Eskuz eta gomazko paletaz. Azkena, Zazpi Iturrikoen aurka.

AMASA-VILLABONA

BEARZANA PILOTALEKUA

20:00. Esku pilota. Behar Zanakoen bi partida.

AMEZKETA

LARRUNARRI PILOTALEKUA

19:30. Esku pilota. Zazpi Iturrikoen bost partida.

IKAZTEGIETA

19:00. Esku pilota. Intxurrekoen hiru partida. Infantil eta kadeteak.

LIZARTZA

19:00. Esku pilota. Tolosako sei partida.

TOLOSA

BEOTIBAR PILOTALEKUA

19:30. Esku pilota. Tolosako bi partida.

USABAL KIROLDEGIA

20:30. Areto futbola. Laskorain vs. Lasarte. Jubenilak.

LARUNBATA ABENDUAK 3

ALEGIA

ELORRI FUTBOL ZELAIA

10:00. Futbola. Intxurre vs. Tolosa. Lehen mailako jubenilen partida.

AMASA-VILLABONA

ARRATZAIN FUTBOL ZELAIA

11:00. Futbola. Billabona vs. Vasconia.

Ohorezko mailako kadeteen partida.

16:30. Futbola. Billabona vs. Euskalduna.

Erregional lehen mailakoen partida.

ASTEASU

USARRABI PILOTALEKUA

18:30. Herri kirolak. Urtzi Telleria eta Josetxo Urrutia harri-jasotzaileen arteko apustua. Pisu bikoitzean, sei minutuko hiru txandatan. Sarrera: 30 euro.

IRURA

AMETSA TRINKETA

13:00. Pilota. Gipuzkoako Trinketa Txapelketako zortzi partida, kadete mailakoak.

IKAZTEGIETA

16:00. Esku pilota. Intxurrekoen hiru partida.

TOLOSA

BEOTIBAR PILOTALEKUA

16:00. Esku pilota. Aurrera Tolosako lau partida.

18:00. Zesta punta. Xistera zirkuituaren barruko III. Elolaren Oroimenezko Txapelketa.

OARGIELKARTEA

17:30. Eskalada. Oargiko VII. Boulder Txapelketa. Izen ematea, 15:30ean zabalduko dute.

USABAL KIROLDEGIA

09:00etatik aurrera, egun guztian. TAKE eta Tolosa CF-ren harrobiko taldeen partidak: saskibaloian, futboleko eta eskubaloian.

IGANDEA ABENDUAK 4

AMASA-VILLABONA

ARRATZAIN FUTBOL ZELAIA

10:00. Futbola. Billabona vs. Urnieta. Lehen mailako jubenilen partida.

IRURA

AMETSA TRINKETA

10:30. Pilota. Gipuzkoako Trinketa Txapelketako hiru partida. Nagusien mailan.

TOLOSA

BEOTIBAR PILOTALEKUA

10:30. Esku pilota. Aurrera Tolosako lau partida.

USABAL KIROLDEGIA

09:15etik aurrera, egun guztian. Tolosa CF-ren harrobiko taldeen partidak: futboleko eta eskubaloian.

10:00. Iristaka II. Indoor Saria. Egun osoan zehar.

TALDE NAGUSIAK

Debabarrena

LAUBURU IBARRA

Areto futbola. Abenduak 4, igandea, 12:30ean Elgoibarren, Bigarren B Maila.

TOLOSA CF ESKUBALOIA

Juanfersa Comunalicia

Eskubaloia. Abenduaren 3a, larunbata, 18:45ean Tolosako Usabalen. Zilarrezko mailako partida.

TOLOSA CF

Aurrera Ondarroa

Futbola. Abenduaren 3an, larunbata, 18:30ean, Tolosako Berazubi futbol zelaian, Hirugarren Mailako partida.

Ariznabarra

TOLOSA CF

Futbola. Abenduak 4, igandea, 15:30ean, Gasteizen. Euskal Ligako partida.

Valle Egües

TAKE REDLINE MEKANIKA

Saskibaloia. Abenduak 4, igandea, 12:00etan, Sarrigurenen. EBA Liga.

ASTELEHENA ABENDUAK 5

AMEZKETA

LARRUNARRI PILOTALEKUA

19:00. Esku pilota. Desafioa: Lau t'erdian, Zubizarreta eta Salaberria. Eskuz banaka, Santxo eta Peio Etxeberría. Binaka, Peru Labaka-Aizpuruz vs. Errandonea-Martinez.



**BILABONA
FUTBOL
KIROL ELKARTEA**

ARRATZAINGO FUTBOL ZELAIA

Larunbata 3 • 11:00
Ohorezko Kadete maila
BILABONA FKE - VASCONIA CD

Larunbata 3 • 16:30
Erregionalen 1. maila
BILABONA FKE - EUSKALDUNA SD

Igandea 4 • 10:00
Jubenilen 1. maila
BILABONA FKE - URNIETA KE

Kontsumo Bulegoa

Loteriaren inguruko ohiko galderei erantzunak

10

Zergak ordaintzen al dituzte Loteriako sariak? Iraungikortasunik ba al dute txartelek? Zer azaldu behar du Loteriako partaidetza batek legala izateko? Saria kobratu daiteke txartela apurtuta edo hondatuta badago? Loteriaren inguruko ohiko galderei erantzuna eskaintzen die Tolosaldeko Kontsumo Bulegoak.

Non kobratzen dira Loteriako sariak?

3.000 euro arteko sariak loteria administrazioetan kobratzen dira zuzenean. Hortik gorako saria duten dezimoak Espainiako Bankura eraman behar dira eta horrek guk esandako finantza entitateari egingo dio transferentzia; edo gure finantza entitateari eraman eta honek Espainiako Bankuarekin bideratuko du sariaren ordainketa.

Zergarik ordaintzen al dute sariak?

2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, Loterías y Apuestas del Estado erakunde publikoak antolatzen dituen zozketetako 2.500 eurotik

gorako sariak %20ko zerga ordaintzen dute.

Iraungikortasunik ba al dute Loteriako txartelek?

Bai, zozketaren hurrengo egunetik aurrera hiru hilabeteko epea dago saria kobratzeko.

Legala izateko zer datuak azaldu behar ditu Loteriako partaidetza batek?

Loteria-txartela betetzen duenaren identifikazioa. Jokatzen den zenbakia eta loteria-partaidetzaren salneurria. Zozketaren data. Loteria-txartela edo dezimoa gorde dituenaren erabateko identifikazioa.

Saria kobratu dezaken bakarria txartela edo dezimoa daukana da, eta gero partaidetza dutenei dagokien zatia ordaindu behar die.

Zer egin daiteke saridun txartela apurtuta edo hondatuta badago?

Fotokopia bat egin ondoren, *Loterías y Apuestas del Estado* erakundeari helarazi behar zaio txartela (zuzenean edo loteria administra-

zio zein Espainiako Bankuaren bitartez) baliokoa den ala ez jakiteko. LAE-ek ezetz badio, helegite administratibo bat egin daiteke. Azken aukera Ekonomiako Ministeritzari altxada-errekurtsoa aurkeztea da.

Kontuz Loteriaren salmentan ematen diren iruzurrekin.

Gero eta iruzur gehiago egiten dira loteria eta bestelako apustuen salmentetan, batez ere Gabonetako eta Erregetako zozketetan. Aldizkarietako iragarkiak eta Internet dira iruzurra egiteko biderik erabilienak. Jakin behar dugu loteriako salmenta legala Espainiar Estatuan egoitza duten saltokiek soilik egin dezaketela. Edozein eskaintzaren aurrean loteria saltzailearen egoitza non dagoen egiaztatu behar da.

Nora jo loteriaren inguruko zalantzak argitzeko?

Loterías y Apuestas del Estado erakunde publikoarengana: Capitán Haya, 53, Madrid, 902 112313 edo www.loteriasyapuestas.es.



Bakailao kokotxak, onddo eta arrautza gorringoarekin

Tipula eta baratxuria xehetuko genituzke hasteko, txiki-txiki eginda, eta erregosten jarriko ditugu. Behin erregositakoan onddoak gehituko dizkiogu. Behin egindako daudenean su gainera kenduko ditugu, eta bakailao kokotxak botako dizkiogu.

Pixkanaka-pixkanaka kazola astinduko dugu, eta orduan ikusiko dugu zenbat olio behar duen. Onddoek eta baita kokotxek ere, gelatina dute, segituan saltsa loditu egingo da. Gure gus-tuen arabera oilo gehiago edo gutxiago botako diogu, eta ur pittin bat ere bai, saltxa hori gure gustura egokitzeko.

Kokotxak segituan egi-

ten dira, 5-7 minututan, kazola poliki-poliki, goxo-goxo astinduko dugu suan jarri eta kenduz. Bakoitzak ikusi beharko du tenperatura nola duen.

Azkena, gorringoa

Gainera perrexil xehetua botako diogu eta pixka bat nahastu ostean, platerera aterako ditugu kokotxak eta onddoak. Behin platerera ateratakoan, gainera botako dugu gorringoa gordinik. Normalean, nahiz eta pixkat bat egin, gorringoak gordinik jaten ditugu. Beraz, beharrezkoa da arrautzak tenperatura ona izateko hozkailutik aterata izatea. Horrela, plater beroaren gainera erraz berotuko da gorringoa.



AGUSTIN LASKURAIN
SUKALDARIA

OSAGAIAK

- Bakailao kokotxak, kilo eta erdi
- Onddoak, 400 gramo
- Arrautzak (gorringoa)
- Tipula bat
- Bi baratxuriale
- Olio
- Perrexila
- Ur pixka bat (arrain salda)



DURANGOKO AZOKA, OHI BAINO LEHENAGO

Gaur zabalduko ditu atek 51. Durangoko Azokak. Ikasleak izango ditu protagonista lehen egunak, baina hortik aurrera eta abenduaren 6a bitartean Landako Gunea bisitarien zain izango da

12

Eneritz Maiz

Egutegiak horrela eskatuta ohi baino zertxobait lehenago iritsi da Durangoko Azoka. Mende erdiko marra pasa, eta guztia prest du Gerediaga elkarteak 51. ediziorako. Aurtengoak, iazkoak bezala, egun bat gehiago izango du. Baina, aurten, esan behar, 7an eta 8an ez dela azokara joateko aukerarik izango.

Gaurtik hasi eta asteartera, 10:30etik 20:00ak bitartean Landako Gunean atek zabal-zabalik izango dira euskaltzale guztientzat. Disko eta liburu artean galtzeko aukera, gustukoa bilatu eta erostekoa, egileekin egitekoa, lagunekin elkartzekoa, aspaldi ikusi gabekoekin hitz egitekoa, ... askotarako ematen du Durangoko Azokak: 349 nobedade eta 246 erakustoki.

Euskara eta kulturaren plaza bilakatzeko da urte sasoi honetan Durango

eta, nola ez, Tolosaldeak ere bere aletxoa jartzen du. Azokan izango dira eskualdekoak ditugun hainbat idazle, ilustratzaile edota musikari. Hirugarren urtez, autoekoizpenek ere beren tokia izango dute, eta guztira 16 kide izango dira, liburu, disko edota aldizkariekin; tartean, Bonberenea Ekin-tzak 2016ko uztarekin. Zehazki, zazpi disko berri kaleratu dituzte aurtengo-rako eta Durangon izango dira.

Areto Nagusia, Ahotsenea, Saganbara, Plateruena, Irudienean, Szentokia, Kabi@ eta Azoka TB guneetan banatuko dira 200 kultur ekitaldietatik gora. Aurkezpenak, solasaldiak, mahai inguruak, filmak, dokumentalak, tailerrak, kontzertuak, antzerkiak, eduki libreak... aukera zabalak izango da aurtengoan ere bost egunetan banatuta.

Bestetik, 1992. urteaz geroztik, Argizaiola Saria banatzen du Gerediaga elkarteak. Aurten, euskararen eta euskal kulturaren alde lan egin duten inu-

rriak omenduko ditu Argizaiola sariarekin, hau da, «oinarrizko kultur langileek» jasoko dute. Milaka izan daitezkeela omenduak adierazi dute elkarteak, baina denen izenean lurralde bakoitzeko pertsona batek jasoko du: Kepa Mendia (Araba), Justo Alberdi (Bizkaia), Jaime Albillos (Gipuzkoa), Patxika Erramuzpe (Ipar Euskal Herria), Mari Karmen Belaza (Nafarroa) eta Jose Ramon Zengotitabengoa (Diaspora).

AZOKA ZENBAKITAN

Stand kopurua: 246

Autoekoizleak: 16

Partaideak: 135 eta 16 autoekoizle

Aurkeztuko diren nobedadeak: 349

Liburuak: 233

Diskoak: 61

Aldizkariak: 19

Bestelakoak

(joko, agenda, egutegi, ...): 31

Bideak: 5

LIBURUAK ETA DISKOAK

IÑAKI MARTIARENA
'MATTIN'



Zarrakamalda
Txalaparta

IÑAKI
ZUBELDIA



Zestoako loroa
Erein

GARIKOITZ
GOIKOETXEA



Euskara irabazteko bidean
Berria-Jakin-Elkar

JUANKRUZ
IGERABIDE



Ur: erori nahi ez zuen tanta
Denonartean

MAITE
GURRUTXAGA



Martin
Elkar

PIRRITX, PORROTXETA
MARIMOTOTS



Tipi-Tapa, Korrika! / Haizearen herrira
Katxiporreta

VENDETTA
Bother



Maldito Records

BELARMIÑAK
Haztearen izerdia



Bonberenea ekintzak

BERNARDO ATXAGA-
JABIER MUGURUZA
Harriaren hiztegia



Mara Mara diskak

EGURRA TA KITTO
Gure ordua



Mauka



GARIKOITZ GOIKOETXEA

KAZETARIA

Bere lehen liburua idatzi berri du Garikoitz Goikoetxea kazetari elduaindarrak. Hizkuntzaren egoeraren eta etorkizunari buruz mintzatzeko, euskararen munduan mugitzen diren adituei egindako elkarrizketak erabili ditu oinarri moduan. Abenduaren 4an aurkeztuko du Durangoko Azokan.

“

Justizia sozialaren terminoetan planteatu behar dugu euskararen egoera

”

Igor Agirre

Berria, Jakin eta *Elkar* argitaletxeak ekindako proiektu berri baten ondorioz sortu zaio *Euskara irabazteko bidean* liburua idazteko aukera Gari-koitx Goikoetxeari (Elduain, 1989). Izenburuak argi azaltzen duen bezala, euskararen egoera jorrazteko asmoz, azken boladan asko aipatzen den ziklo aldaketari erreparatu nahi izan dio *Berria* egunkariko kazetariak. Durango-

ko Azokan aurkeztuko du liburua abenduaren 4an, 16:30ean.

Izenburua irakurrita, positiboa zara euskararen egoeraren inguruan.

Batzuk esan didate negatiboa dela liburua. Azkenean, kontua ez zen nire iritziak kontatzea; 100 lagunekin egin-dako elkarrizketak dira liburuaren oinarria. Euskararen munduan gabiltzanoi askotan leporatzen digute ezkor xamarrek garelara, lanak egin arren

ez dugula behar adina aurrera egiten, geure buruari egur gehiegi ematen diogulara, *autoflagelazioa* gustatzen zaigulara... Pixka bat, hortik alde egiten saiatu gara. Datuak direnak dira, denok ezagutzen dugu zein den egoera. Baina bueno, goazen baikortasunez hartzera egoera eta ikustera aurreraka ari garelara. Ez nahiko genukeen gauza guztietan, baina behintzat ari gara.

Nola uztartu duzu lanbidea, lehen liburua idazten aritzea, eta horre-

tarako 100 elkarrizketa egin beharra?

Horrek eskatzen du bizitza sozialari ordu dezente kentzea. Egia da kazetari izateak abantaila bat ematen dizula batetik, jendea ezagutzen duzulako. Mundu horretan baldin bazabiltza, kontaktuak egiteko eta jendea ezagutzeko aukera ematen dizu kazetari-tzak. Eta bestetik, elkarrizketak egiteko ohitura edukitzeak ere pixka bat errazten dizu lana. 100 lagunen iritziak biltzen dira liburuan, eta horietako asko bi ordutik gorako elkarrizketak badira ere, badaude elkarrizketa motzagoak. Elkarrizketatu bakoitza mundu bat da eta bakoitzak esateko duena ateratzen saiatzea da kontua. Azkenean, 100 elkarrizketatu badira ere, denei ez diegu denetik galdetu. Bakoitzari bere espezialitatean esateko duena atera nahi izan diogu euskararen inguruan.

Zein gairen inguruan laburtu duzu lana?

Hiru gai nagusi dira. Batetik, 80ko hamarkadatik hasi eta gaur egun arteko bilakaeraren balantzea. Arloz arlo egin dugu hori: bilakaera soziolinguistikoa herrialdez herrialde nolako izan den, hezkuntzan zein aurrerapauso egin ditugun, administrazioan, hedabideetan, gazteen arloan, interneten...

Bestetik, gaur egun *impasse* egoera esaten dioten egoera horri buruzko gogoeta egin da. Hor ahalegindu gara, batetik, euskalgintzako eragileekin hitz egiten, euskalgintzako sektoreak nola dauden azaltzeko. Alderdi politikoekin ere bai; EAEkoekin, Nafarroakoekin eta Ipar Euskal Herrikoekin. Horretaz gain, halako diskurtso edo mezu berriak zabaltzen ari dira eta horieku jaso ditut. Hala nola, berdintasunaren ingurukoa, feminismotik eus-

kalgintzari egiten zaion ekarpenarena, estatugintza nola lotzen den euskararekin... Eta bigarren kapitulu hori ixteko, gogoetan dabilzan adituen iritziak jaso dira: Jon Sarasua, Kike Amonnarriz edo Juan Karlos Etxegoien *Xamar*-enak, adibidez.

Hirugarren kapituluari, hemendik aurrera zer egin behar ote dugun jorratu da. Lehenik, ikusten da aldaketa soziolinguistikoko batzuk gero eta nabarmenagoak direla: Tolosaldean esaterako, arnaguneekin zer gertatzen ari zaigun. Bestetik, eremu erdaldunetan gero eta euskaldun gehiago dauzkagu. Horietaz gain, aktibazioaren gaia ere geroz eta indar handiago hartzen ari da, Lasarte-Orian egin duten ekimen horren bidetik, Agurainen edo Hernanin ari dira orain. Hirugarrenik, jakin nahi izan da immigrazioak zer aldaketa dakartzan euskararen arlora. Eta laugarrenik, hemendik gutxira Kontseiluak *Hizkuntza Eskubideak Ber-*

«**Aldaketa soziolinguistikoko batzuk gero eta nabarmenagoak dira: Tolosaldean esaterako, arnaguneekin zer gertatzen ari zaigun**»

«**100 lagunen iritziak biltzen dira liburuan; bakoitzak esateko duena ateratzen saiatzea da kontua**»

matzeko Protokoloa aurkeztuko du, Donostia 2016ren barruan. Horren inguruan, hizkuntza eskubideekin zer gertatzen den arakatu da. **Euskarak aurrera egin duela diozu. Zertan egin du aurrera eta zertan geratu da hankamotz?** Hitzunen kopuruan egin du aurrera.



Ikusten da eskolatik jende asko euskaldundu dela, etxetik euskalduna ez den jendeak euskara ikasi duela. Gero, gustatuko zaigu ala ez behar adina ikasten ote duten. Noski, etxetik erdalduna denari guk ezin diogu eskatu euskara bihur dezala bere lehenengo hizkuntza. Alegia, bere eguneroko hizkuntza gaztelania baldin bada, etxean eta kuadrillan gaztelaniaz egiten baldin badu, euskaraz ez du inoiz gaztelaniaz bezain ondo egingo. Beraz, nik uste dut errealismo kutsu bat ere behar dugula.

Hala ere, bistakoa da belaunaldi berrietan, adibidez, euskaldunak gero eta gehiago direla. Gure eskualdean, esaterako, gehiengo zabala dira euskaraz dakitenak. Gaur egun, 24 urtetik behera, Tolosaldean inor gutxi egongo da euskaraz hitz egiten ez duenik eta gutxien-gutxienik, ulertzen ez duenik.

Hutsuneak, nire ustez, eskolatik kanpoko arloetan dauzkagu. Nolabait ere, zero urtetik hasi eta 18-22 urtera arte, gazte bati euskaraz hezteko auke-

ra bermatzen diogu. Kontuan hartu behar dira ere unibertsitatean nahiz lanbide heziketan dauden hutsuneak. Baina behin eskolatik ateratzen denean, bere esku dago militante izatea eskolan euskara ikasi eta kaleak erdaraz funtzionatzen duen bitartean, hedabideetan erdarara nagusi denean, eta eskualde batzuen kasuan izan ezik, etxe gehienetan erdarazko bizimodua egiten denean. Nik uste, enfokea pixka bat mugitu beharra daukagula. Eskolatik jarraitu beharko da egiten, baina beste arlo batzuetan ere hasi beharra daukagu.

Euskararen arloan ere, gehiegi zentratu gara arlo akademikoan?

Seguruena, bai. Nik uste, garai batean pentsatu zela, eta logikoa izan zitekeen hori pentsatzea, gazteak eskolan euskalduntzen baziren kalean euskaraz egingo zutela. Baina gauzak ez dira hain errazak. Ez du funtzionatzen paradigma horrek. Hor, argi dezente jarri du orain dela lau urte Soziolinguistika Klusterrak egindako Arrue ikerketak.

Umeez eskolan zenbat euskara egiten duten aztertu zen eta ikusi zen, kalean eta etxean baino gehiago eskolan egiten dela. Baina desberdintasun deigarri bat zegoen: LHko laugarren maila-

«**Eskualde mailan ere iritsi zaigu momentua esateko ezin dugula jarraitu duela 30 urte moduan, jendeak euskara ulertuko ez balu bezala**»

«**Egoera berri horrek eskatzen duen mailako neurriak eta ardurak hartu behar ditugu orain**»

ko haurrek euskaraz askoz gehiago egiten zuten, DBHko bigarren mailakoekin baino. Zergatik? Behin hamalau urterekin, bizitza sozial gehiago daukazu. Kalean gehiago ibiltzen zara, eta ikusten duzu kaleak, hedabideak, eta munduak, orokorrean, erdaraz funtzionatzen duela. Beraz, inertziaz bakarrik bada ere, horra jotzen duzu.

Jasotako iritzien artean, nola igo genezake erabilera?

Badaude elkarrizketatu gehienek komunean dituzten ideia batzuk. Gehienek ikusten dute aldaketan beharra. Adibidez, eskolan jarri dugun adinako indarra beste sektore batzuetan jartzan hasteko beharra; gaztetxoekin aisialdian, esaterako. Esaten ari bagara Tolosaldeko ikasleen %100ek D erdian ikasten dutela, gaztetxoei eskaintzen zaien aisialdia %100 euskaraz da? Asteburuetan ematen diren gaztetxoentzako pelikulak %100 euskaraz dira? Edo gaztelaniazkoak dira nagusi? Eskualdean sustatzen diren ekintzetan euskarak zein ikusgarritasun dauka?

Gaur egun, Tolosaldean ez daukagu herri bat bera ere euskaldunak %70a baino gutxiago direnik. Uste dut eskualde mailan ere, iritsi zaigula momentua esateko ezin dugula jarraitu duela 30 urte bezala, jendeak euskara ulertuko ez balu bezala.

Askok diote, erabiltzeko, erabilgarria izan behar duela euskarak.

Kontua da, ikasleak eskolara joaten direnean, euskara zuzena ikas dezaten eskatzen diogula eskolari. Eskolak irakatsi behar al du hori ez dena? Zer pentsatzen dugu, gaztelaniadun haur baten txisteak egiten eskolan ikasi duela? Arazo bat detektatzen dugunean, ezin dugu utzi dena eskolaren bizkar gainean.

Euskarazko hedabideek erabiltzen duten euskara ez al dago arlo akademikoan erabiltzen den erregistroan kateatuta?

Euskararen eronketako bat dela esango nuke hizkuntza erabilgarria egiten asmatzea. Euskarak baino gehiago, hiztunek daukagu arazo hori. Euskarak baditu baliabide nahikoa eguneroko



ko hizkeran egiteko. Alegia, umetatik euskara jaso edo ikasi duenari, nik ez diot ikusten euskarak ez diola balio bere eguneroko bizitzarako.

Aisialdia aipatu duzu lehen. Eskaintzaz gain, euskarazko aisialdira jendea erakartzen ez dugu asmatu?

Bakoitzak egiten duenaren esku geratu da. Adibidetzat kirol bat hartuz, liburuan batek galdezten du: «Gipuzkoan zenbat futbol talde daude euskaraz entrenatzeko moduan eta zenbatek entrenatzen dute euskaraz?». Dena gelditzen baldin bada entrenatzailearen, taldeko norbaiten edo jokalarien esku, badakigu horrek zer emaitza ematen duen, inertiak zertara eramaten gaituen. Bada ordua aisiaren gaiari heltzeko. Aldi berean, hori bakarrik ez da nahikoa; familiara, lan mundura eta komunikabideetara ere zabaldu behar dugu espektroa.

Euskalgintzak egitura garrantzitsuak sortu ditu, hala ere, sektore batzuetara iristeko zailtasunak izan ditu?

Eta oraindik zailtasun asko daude. Uste dut, herri honetan jende asko dagoela euskararen egoerarekin ukituta sentitu ez dena. Hor, azken urte hauetan, feminismotik ekarpen garrantzitsuak egiten ari direla uste dut. Emakumeek jasaten duten berdintasunik eza zer da emakumeen arazoa bakarrik ala gizarte guztiarena? Beraz, euskaldunek jasaten ditugun eskubide urraketak zer dira euskaldunen arazoa bakarrik edo gizartearena? Eskubideei buruz hitz egiten hastean, justizia sozialaren terminoetan planteatu be-

har dugu hau. Erdaldunei hori ikusarazi behar zaie eta aldi berean, euskalgintzak ere saiatu behar du euskalgintza erdaldunekin batera egiten.

Manex Agirrek esan izan du, konturatu behar dugula euskalgintza gizarte aldaketarako tresna dela, eta gizarte aldaketak eskatzen duela herritarrengana iristea. Nolabait ere, tentsio positibo bat sortu behar dela, jendeari interpelazio bat egin behar zaiola. Denok dugu eskubidea euskaraz bizitzeko, erdaldunek erdaraz bizitzeko duten eskubidea auzitan jarri gabe. Baina eskubide batek obligazioak ere badakartza.

Egoera horrek konfrontazioa dakar.

Konfrontazioa dakar, baina asmatu behar dugu konfrontazio hori kudeatzen. Alegia, bitartekoak jarri behar dira tentsio hori zama izan ez dadin euskaldunontzat. Askotan aipatzen da gutxiengo ulermen maila. Jo dezagun, hemendik hamar urterera, adin ertainetatik behera Tolosaldeko biztanleetan euskararen ia unibertsalizazioa iritsi gintezke. Horrek,

euskaldunok segurtasuna izatea eragingo luke, denda batera sartu eta harreran dagoenak, gutxienez, euskaraz ulertuko duelako. Horrek tentsioa asko jaisten du.

Hala ere, eskubideekin batera, erdaldunei ikusarazi behar zaie ere zer galtzen ari diren. Ikusarazi behar diegu zein kultur sorkuntza dagoen hemen, zer galtzen ari diren. Bestela, ikusezintasun horren bigarren pausoa gutxiestea da.

Liburuaren azalera bueltatuz, aurrera doa euskara.

Nik uste aurrera badoala eta etorkizunean, zer egiten duen ikusi beharko dugu. Dena ez dago gure esku. Globalizazioa edota krisi ekonomikoak ere eragiten digu. Eragiten digun beste faktoreetako bat jaiotza-tasa da, oso gutxi aipatzen dena. Faktore asko daude euskararen esparru zehatzetik kanpo daudenak. Baina momentua da baikortasun puntu bat hartzeko, egoera zein den ahaztu eta baikortasun txoro batean erori gabe.

Ez gaude 80ko hamarkadan geunden egoera berean, hobeto gaudela denok onartzen dugula uste dut. Egoera berri horrek eskatzen duen mailako neurriak eta ardurak hartu behar ditugu orain.

**EUSKARA
IRABAZTEKO BIDEAN
GARIKOITZ GOIKOETXEA**



Berria-Jakin-Elkar,
2016

Aurkezpena:

Abenduak 4,
16:30ean,
Durangoko Azokako
areto nagusian.

Komikia eta euskara batean

9. Ibarra Galtzakomik Komiki Lehiaketako lehen saria Javi Navarro tolosarrak eskuratu du 'Basamortuaren sekretuak' lanarekin

Eneritz Maiz

Bederatzigarren Ibarra Galtzakomik komiki lehiaketa da aurtengoa. Galtzaundi Euskara Taldeak, Ibarako Udalaren laguntzarekin antolatzen du. Baina, Tamayo paper dendaren, *Xabiroi* argitaletxearen, Ibarako merkataritza elkartearen, Eluska jatetxearen, Danon Txokoa edaritegiaren eta Mahala baserriko produktuen babesa ere ezinbestekoa du, euskarazko komiki lehiaketak aurrera egiteko. Edozeinek parte hartzeko aukera izan du, eta gaia librea izanagatik ere, lehiaketa honen helburu nagusia euskarazko komikigintza sustatzea denez, lanak euskara hutsean aurkeztu behar izan dira.

Epaimahaia astelehenean bildu zen aurtengo lehiaketara aurkeztu diren lan guztiak aztertu eta saridunak aukeratzeko. Lan horren ardura, Joseba Antxustegietxartek (Galtzaundiko zuzendaritzako kidea), Maite Gurrutxagak (ilustratzailea) eta Idoia Olanok (Euskara teknikaria) izan dute.

Ezusteko saria

Javi Navarro tolosarra da *Basamortuaren sekretuak* lanarekin lehen sari potoloa eskuratu duena, eta berria jakitean poz handia sentitu zuen: «Urtero aurkeztu izan naiz, eta jada ez zutenez deitu ez nuen espero aste honetan deituko nindutenik. Ezustekoa izan da eta izugarritzko poza hartu nuen», dio Navarrok.

Urtero aurkeztu izan da, eta ahal duen guztia ematen duela azaldu du. Aurten ere, eta denboraz larri ibili bada ere, espresuki egin du komikia lehiaketarako: «Oso zaila da irabaztea, maila dago eta horregatik hartu dut hainbesteko poza. Urtero jarraitzen dut eta urtero ikusten ditut komiki saridunak», argitu du. Hala ere, ez da lortu duen lehen saria aurtengoa, eta «ohore bat» dela adierazi du honelako lehiaketa bat etxe ondoan izatearena.

ENTZUN

Javi Navarro 2016ko lehiaketako irabazleari egindako elkarrizketa osoa entzungai duzu:

www.ataria.eus

SARITUAK

12 URTETIK BEHERA:

1. Saria: *Mixiren abenturak*. Paula Ansorena Irizar (Tolosa). 100 euro eta komiki bilduma.

2. Saria: *Amets gaiztoak*. Nahia Ansorena Irizar (Tolosa). Komiki bilduma eta marrazketarako materiala.

Bi aipamen: *Izenik gabeko txakurraren bidala*. Joanes Amonarriz Larraza (Tolosa). *Halloween*.

Nora Larraza (Tolosa). Komiki bilduma bana.

Ibarako komikirik onena:

Aterkiaren ametsa. Iñigo Agirre Olea (Ibarra). Opari txekoa eta komiki bilduma.

*Saridun guztiak *Xabiroi* aldizkaria harpidetuko dira urtebetez

19

12 URTETIK 16 URTERA:

1. Saria: *Erretratu madarikatua*. Aner Insausti (Tolosa). 200 euro, marrazketarako materiala eta komiki bilduma.

2. Saria: *Matematikak*. Laida Jimenez (Tolosa). 100 euro eta komiki bilduma.

Bi aipamen: *Boligrafo baten istorioa*. Aroa Querejeta. *Bai ahal dugu*.

Irati Jometon. Komiki bilduma bana.

Ibarako komikirik onena: *Arrain laranja*. Maider Belver (Ibarra). Opari txekoa eta komiki bilduma.

*Saridun guztiak *Xabiroi* aldizkaria harpidetuko dira urtebetez

16 URTETIK GORA:

1. Saria: *Basamortuaren sekretuak*. Javier Navarro (Tolosa). 700 euro eta Eluska jatetxean bi lagunentzako afaria.

2. Saria: *David Robert Jones*. Aitor Urkiola Badiola (Ondarroa). 300 euro eta Danon Txokoa bi lagunentzako afaria.

BASAMORTUAREN SEKRETUAK



1997-KO APIRILAREN 14EAN SAHARAKO
BASAMORTUAN, EZINEZKO ZELAI BATEAN, JOXEAN
EXPOSITO ARKEOLOGOA AURKITU ZUTEN.



HAINBAT BITXIKERIK
ATENTZIOA DEITU ZIEN
AURKITZAILEEI...



GORPUTIK GERTU ZEGOEN
LANPARA ZAHAR BATEK
ETA, BATEZ ERE,...



BERE IMINTZIO XELEBREAK.
BAI, JOXEAN POZIK HIL ZEN.

LANPARAK NAHIKO ZAHARRA ZIRUDIEN,
BAINA, BALIO GUTXIKOA. HUTSIK
ZEGOEN.



JOXEAN ZUELA ASTE PARE BAT
BASAMORTUAN GALDU ZEN, INDUSKETA
BATEAN LANEAN ARI ZELA, EKAITZ
BORTITZ BATEN ERDIAN.



GERTAKARIAK, BERE BEREZITASUNA ZELA ETA,
JAKINMIN HANDIA SORTU ZUEN ETA GORPUA
BEREHALA ABERRIRATU ZUTEN.

EGIN ZIOTEN
AUTOPSIK
MAROKOKO
FORENSEEK
ZIOTENA
BAIEZTATU ZUEN.
SINESGAITZA
IRUDITU ARREN,
JOXEAN ITOTA HIL
ZEN.




ZER MISTERIO
GORDETZEN ZUEN
IRRIFARRE
HORREK? NOLA
ULERTU ZELAI
HURA MUNDUKO
BASAMORTURIK
IDORRENEAN?

IRAKURLEAREN ESKU
UTZIKO DUGU ONDRENGO
ORRIALDEETAN KONTATUKO
DUGUNA SINETSI ALA EZ.



HONA HEMEN JOXEAN BERE
AZKEN UNEETAN.



IBILITAKO KILOMETROEN ZAMA
OINETAN ZERAMALA, EGUZKI IZPIEK
HARAGIA ZULATZEN ZIOTEN ORRATZAK
BALIRA BEZALA. URA ASPALDI
BUKATU ZITZAION ETA ETSIPENAK
BULTZATUTA EROMENETIK PAUSU
BATERA ZEGOEN.



ASKI DA! EZIN
DUT GEHIAGO!

AKABA NAZAZU
BEHINGOZ,
BASAMORTU
NAZKAGARRIA!



HARA! ZER
DEMONTRE DA
HAU?!



GURTZI!
GURTZI!



BAINA ZER
ARRAIO!



UAAAARG!
EHUNDAKA URTE
ONDOREN
AZKENEAN ASKE
NAIZ!



JENIU BOTERETSUA NAIZ ETA NERE
ESKERRONA ADIERAZTEKO HIRU GURARI
ESKEINTZEN DIZKIZUT! ONDO ERABAKI!



URA,
MESEDEZ!
URA!!

AIZU! EDOZER GAUZA
ESKA DIEZADAKEZU...
URA ZERTARAKO?



URA EDATEKO
NAHI DUT!

AHA! BAINA ZENBAT?

ASKO!

ASKO? WITRO
BAT? BI WITRO?

BROMETAN?!
ARTIKUTZAKO
URTEGI OSOA
EDANGO NUKE!



SNAP!

AMAIERA

ORIXEKO 2.DBH A,C,E

Historian euren txokoa lortu dutenak

GURE INGURUKOAK

ORIXE (Orexa, 1888)

Gerra garaian bizirik iraun zuen euskal olerkari bakarra eta eskola honi bere omenez jarri zioten Orixena izena.



KATALINA ERAUSO (XVI. mendea)

Bere bizimodu gustatzen ez zitzaion XVI. mendeko emakume borrokari eta ausarta. Mutilez mozturatu eta Amerika guztia zeharkatu zuen inork emakumea zela antzeman gabe.

LUCIO URTUBIA

(1931)

AEBko bankuari 20.000.000 dolar faltsifikatu zizkion igeltsero nafarra.

TXIRRITA

(1860-1936)

Bertsolaria izan zen. Euskal Herri osoan oso famatua.

FERNANDO

AMEZKETARRA

(1764-10-10)

Gipuzkoako bertsolari hobereana, bere alaitasun eta argitasunarengatik ospetsua.

LAZKAO TXIKI

(1926-1993)

Txikia jai eta txikia hil zen bertsolari eta txiste-kontalari trebea bezain handia.

MIGUEL INDURAIN

(Atarrabia, 1964)

Historian izan den Txirindulari onenetako bat, bost Frantziako Tour segidan eta beste garaipen ospetsu irabazi dituen txirindulari nafarra.

PERIKO ALONSO

(Tolosa, 1953)

Erdilari bikaina, futbol talde asko lehenengo mailara igotzea lortu duen tolosarra; bai jokalaria bezala, bai entrenatzaile bezala.

JULIAN RETEGI

(Erasun, 1954)

Pilotari profesionala izana, txapel gehien dituen pilotaria eta hobereenetakoa.

LUIS MIGEL

ARKONADA

(Donostia, 1954)

Munduko atezainik hobenetarikoa izan zen. Hau da bere garaiko esaldi famatuena: «No pasa nada tenemos a Arkonada».

EDURNE PASABAN

(Tolosa, 1973)

Hamalau zortzi milako igotzen lehen emakumea.

NAZIOARTEKOAK

MICHAEL PHELPS

(1985)

Baltimoreko marrazoa. Olinpiar domina gehien dituen igerilaria.

MICHAEL JORDAN

(1963)

NBAko jokalaririk hobereenetakoa izan zen.

MARADONA (1960)

XX. mendeko futbol jokalaririk hobereana

aukeratu zuten.

PELE (1940)

Historiako futbol jokalaririk hobereana, famatuena, eta historian gol gehien sartu dituena.

MARTA VIERA DE

SILVA (1986)

Messik bezala, bost urrezko baloi dituen emakume aurrelari brasildarra.

KELLY MCGARRY

(1982-2016)

Downhill bizikleta estiloko gidari hobereenetarikoa

zirkuitu berean hirubak flip emateagatik.

USAIN LEO BOLT

(Jamaika, 1986)

Munduko pertsonarik azkarrena da, errekorra du 4x100m, 100m eta 200m-tan.

JUSTIN GATLIN

(1982)

Usain Bolten atzetik, munduko bigarren korrikalaririk azkarrena.

JAY MORIALITY

(1978-2001)

Munduan lehena 16 urterekin olaturik handiena surfeatzen. Buzeo librea egiten hil zen.

MUHAMMAD ALI

(1942-2016)

Bi aldiz lortu zuen boxeoko munduko titulua.

WOLFGANG

AMADEUS MOZART

(Salzburgo 1756

-Viena 1791)

Konpositore klasikoetan famatuenetako bat izan zen. Bere bizitzan zehar 600 obra baina gehiago idatzi zituen.

LUDWIG VAN

BEETHOVEN

(Alemania 1770

-Viena 1827)

Txikitatik gorreria pixka bat izanda ere, zortzi urterekin eman zuen bere lehen kontzertua.

Konpositore klasikoetan famatuenetako bat izan zen. Arraroa bada ere, gorra geratu zenean, egin zituen bere lan esanguratsuenak.

WILLIAM

SHAKESPEARE

(1564-1616)

Macbeth, munduko antzerkirik antzeztuena, sortu zuen idazlea.

GEORGE BOOLE (XIX)

Gure tresna elektronikoen informazioa gordetzeko erabiltzen duten formularen asmatzailea.

NEWTON (1642-1726)

Aurkikuntza zientifiko asko egin zituen matematiko, fisiko, astronomo, filosofo, alkimista eta teologoa; baita Grabitatearen legea ezarri zuena.

MARIE CURIE

(1867-1934)

Radioa eta Polonioa asmatu zituen eta Sorbonan eskolara ematen lehenengo emakumea izan zen.



PICASSO

(1881-1973)

Hitz egiten baino lehenago, marrazten ikasi zuen margolari ospetsua.

THOMAS EDISON

(1847-1931)

Gaur egun dauzkagun tresna elektronikoen eta argiaren sortzailea.

ANTON VAN

LEEUEWENHOEK

(1632-1723)

Mikroskopioa asmatu zuen, bakterioak eta globulu gorriak deskribatu zituen. Geroago espermatozoideak.

VINCENT VAN GOGH

(1853-1890)

Margolari ospetsua izan zen hil eta gero, baino bizirik zegoenean koadro bat bakarria saldu zuen.

FRIDA KAHLO

(1907-1954)

Emakumeen eskubideen kontra borrokatu zuen eta oso marrazkilaria ospetsua bihurtu zen.

BOB MARLEY

(1945-1981)

Reggae musika eta

musika jamaikarreko pertsonarik errespetatuenetakoa.

VALENTINA

TERESHKOVA

(1937)

Historian lehen aldiz espazioa joandako emakumea izan zen (1963). Lehenengo aldiz lurra ikusi zuenean esan zituen hitzak izan ziren: «Pena ematen dit margolaria ez izateak edertasun hau margotzeko».

NELSON MANDELA

(Hegoafrika, 1918-2013)

Beltzen aldeko eskubideak lortzeko ahalegin handia egin zuen pertsona. 27 urte kartzelan egondakoa, beltzek txuriaren eskubide berak merezi zituztela esateagatik.

ADOLF HITLER

(1889-1945)

Bigarren mundu gerra hasi zuen eta 9 milioi judu hil zituen gizaki ankerra.

MALALA

YOUSAFZAI (1997)

Giza eskubideen alde borrokatu du, emakumeen eskubideen eta umeen hezkuntzaren alde batez ere. 2014an Bakearen Nobel Saria irabazi zuen 17 urte zituela eta Nobel Saria irabazitako pertsona gazteena bihurtu da.

NEIL ARMSTRONG

(1930-2012)

Ilargia lehenengo zapaldu zuen gizona (1969).

ISABEL II (1926)

Erresuma Batuko erregina eta agintean denbora gehien daraman erregina da.

ABRAHAM

LINCOLN (1809-1865)

Estatu Batuetako 16. presidentea eta AEBko esklabutzarekin bukatu zuena.

Euskararen eguna

OSTIRALA ABENDUAK 02

ADUNA

ARGAZKI ETA BIDEO LEHIAKETA

18:00. Adunako herritarrek parte hartuko dute, eta euskararekin zerikusia duten argazki edota bideo laburrak aurkeztu beharko dituzte (atzo), eta sari banaketa izango da, elkarteetan.

ALEGIA

KONTZERTUA

22:30. Alegiako Udalak eta gaztetxeak elkarlanean antolatuta, Anari bakarlarriaren kontzertua izango da, gaztetxean.

AMASA-VILLABONA

ARROAN

Goizean. Gaztaina jatea eta Euskararen txantxangorria horma irudia marraztuko dituzte, plazan.

Arratsaldean. Euskal jokoak.

ZUBIMUSUN

Goizean. Egun osoan zehar gaiaren inguruan ariko dira, eta haur hezkuntzan 16:00etan zine emanaldia, lehen hezkuntzan, txokolate jatea eta erronomia eta DBHn, 11:15-12:45era, Malkar edo Behar Zana frontoian, herri kirolak.

IBARRA

9. GALTZAKOMIK KOMIKI LEHIAKETA

19:00. Galtzakomik komiki lehiaketako sari banaketa egingo da, kultur etxean.

IKAZTEGIETA

TALOAK, IPUINAK ETA JOKOAK

11:00-12:00. Talo jatea herritarrentzat eta jolasak ikasleentzat, plazan.

12:00-12:30. *Euskaraz bizi nahi dut* abestia abestu eta Zazpi jauzi dantzatzeko dute.

17:00. Ekuatore Gineako ipuinak eta jokoak, Estrella Ndong eta Idoia Sanchezen eskutik, udaletxeko balio anitzeko gelan.

IRURA

KALEJIRA, PREGOIA ETA KANTUA

15:15. Ikastolako umeak kalejiran plazaraino joango dira trikitilariekin

(eguraldi txarra eginez gero, frontoian egingo da).

15:30. Udalaren adierazpena, udal ordezkari batek egingo da.

Jarralan. Euskararen Nazioarteko Egunari buruzko pregoia irakurriko dute LH 6ko bi ikaslek.

15:45. Euskararen Txantxangorria ikuskizuna (ikastolako haurrek prestatua) eta *Arraroa noski* abestia. Irura eta Anoetako euskara ikasleak gonbidatu dituzte haurrekin batera abestera.

16:00. Gaztaina jatea.

LARRAUL

KOREOGRAFIA

12:00. Eskolako umeek koreografia bat egingo dute, herriko plazan.

ORENDAIN

TAILERRA

19:00. *Sendotu arnasguneak gure herriak hasita* tailerra, kultur etxeko liburutegian.

Orendaingo Udalak eta Uemak antolatuta.

ZIZURKIL

GAZTAINA JATEA

16:30. Aste guztian jorratu dute euskararen gaia Pedro Mari Otaño ikastetxean, eta gaur ere, eskolan tailerrak eta jolasak dituzten arren, gaztaina jatean bilduko dira herritarrek.

LARUNBATA ABENDUAK 03

ALEGIA

TAILERRA

10:00. Udazkeneko kultur egitarauaren barruan, eta Euskararen Eguna dela eta, Larreta esnekiek eskainitako tailerra, plazan.

AMASA-VILLABONA

FILM LABURREN BILDUMA

19:00. *Euskaraz bizi nahi dut* film laburren bilduma, Gurea antzokian, doan.

ANOETA

ARRATSALDEKO FESTA

18:30. Gaztaina jatea plazan.

19:00. Ekitaldi nagusia udaletxe aurrean: adierazpen instituzionala. Musika, kantu eta dantza emanaldia eta bideo kliparen proiektzioa.

19:30. Poteoa, herriko trikitilari, bertsolari eta abeslariak girotuta.

ALTZO

EKITALDIA ETA HAMAIKETAKOIA

12:30. Euskararen Eguna denez, Altzoko Udalak eta Otsabiope Gaztetxeak elkarrekin antolatuta dute ekitaldia, plazan. Euskararen aldeko aitorpena egiteaz gain, hamaiketakoia izango da. Halaber, euskarari bultzadaxo bat eman nahirik, merkatuan dauden euskarazko produktuen katalogoa banatu da herriko etxeetan, 0-12 urtekoentzat eta 12-16 urtekoentzat bereiztuta.

ORENDAIN

EUSKARAZ 24 ORDUZ

11:00. Haurrentzako jolasak.

11:30. Mugikorrek euskaraz erabili; aplikazioak, itzultzaileak... tailer praktikoa.

12:00. Komunikaziorako estrategiak hizkuntzaz haratago.

13:00. Euskal zunba herrikoa. Egunean zehar herriko jostunak, trikitilariak eta pandero jotzaileak ibiliko dira. Ekintza guztiak herri gunean izango dira (eguraldi txarra eginez gero, kultur etxean).

ZIZURKIL

BERTSO JARRIEN AFARIA

21:00. III. Pello Mari Otaño bertso paper lehiaketaren aitza karia afaria izango da, Plaza Etxeberri jatetxean. Afalostean, sari banaketa egingo dute.

ASTELEHENA ABENDUAK 05

AMEZKETA

EMANALDIA

15:00. Zumadi eskolako haurren emanaldia, kultur etxean.

ERAKUSKETAK

EUSKAL ARNASGUNEAK

Nondik gatoz eta nora goaz?

Udalerrri euskaldunetan gertatzen dena argi eta garbi.

Ordua: 11:00-13:00 / 17:00-19:00.

Orendaingo Udala eta Uema.

Kultur etxea. Orendain.

Agenda



365 EGUN EUSKARAZ

Bihar, abenduaren 3a, larunbata, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko bada ere herriz herri (25. orrian egitarauak bateratuta ageri dira), '365 egun euskaraz' da aldarria. ATARIA

26

OSTIRALA ABENDUAK 02

ALTZO DOKUMENTALA

19:30. Altzoko Elordi elkarteak antolatuta, 6. Begiradak zine-aldiaren barruan, Kalebegiak, 12 begiradaren azken lau laburpenak eskainiko dira, udaletxean.

Ondoren. Zine-aldiari amaiera emateko, pintxo batzuk jateko aukera izango da Elordi elkartearen.

ALLEGIA

GAZTETXEAREN URTEURENA

21:00. Zahagi ardoa.

22:30. Anari bakarlariaren kontzertua.

IBARRA

HITZALDIA

18:30. *Zergatik egiten dugu kirola?* hitzaldia Jarduera Fisiko eta Kirolen Zientzien Fakultateko Talde Kritikoaren eskutik, Ibarako gaztetxean.

TOLOSA

TITIRIJAI

22:00. Madrildik etorriko da In-Pulso taldea, *Fauno lo bello y lo monstruoso* lanarekin. Hitzik gabea izango da, eta helduei zuzendua, Topic zentroan.

MUSIKA

22:30. Gente Mayor Cadizeko taldea eta Hyedra taldea igoko dira, Bonbereneako oholtzara. Sarrera: 8 euro.

MUSIKA

23:30. Orbela Gauaren barruan ariko dira,

Nevermind Trio, jazz gaua. Hasier Oleaga (bateria), Julen Izarra (saxoa) eta Jorge Abadias (gitarra) ariko dira Orbela tabernan.

LARUNBATA ABENDUAK 03

ABALTZISKETA

ERRETRODUNEN EGUNA

13:00. Meza, Larraitzeko ermitan.

Ondoren. Bazkaria, Larraitz jatetxean.

ALBIZTUR

AZOKA

11:00-13:00. Elkartasun Baserri

Azoka egingo dute, plazan, Albizturko eskolak bultzatuta,

ANOETAKO HERRI IKASTOLAK
Eraikin eta baliabideen
mantentze-lanetarako
langile bat behar du
lanaldi erdiz aritzeko

Zer baloratuko dugu:

- Antzeko lanetan eskarmentua izatea.
- Erdi edo Goi mailako zikloko titulua.
- EGA edo baliokidea.

Curriculumak e-mailez bidali behar dira

anoeta@ikastola.eus helbidera abenduak 11 baino lehen

ileapaindegia? tailerra?
optika? jatetxea? albaitaria?...



Topatu
behar duzuna!
Eskualdeko
zerbitzuak

www.ataria.eus

Amalurra proiektuaren barruan. Postuak eta tailerrak egongo dira.

ALEGIA

KONTZERTUA

22:30. Alegiako Gaztetxearen 29. urteurrenaren barruan, Lehendakaris Muertos taldearen kontzertua izango da, gaztetxean.

BERASTEGI

GAZTAINA JATE HERRIKOIA

12:00. Bertso triki poteoa, herrian zehar.
14:00. Gaztaina bazkari herrikoa.
Ondoren. Bertso saioa Andoni Egaña eta Iñigo Gorostarzurekin.
Iluntzean. Luncha eta jarraian Dj-a.

IBARRA

BABARRUN FESTA HERRIKOIA

09:00-13:00. Ibarra Babarrunaren VII. Lehiaketa herrikoa.
11:00. Buruzapia nola jantzi ikastaroa.
12:00. Ibarra IV. Txapelketa sagardoa nork ondoen bota.
13:00. Herrialde ezberdinetako babarrun dastatzea.
14:30. Babarrun jatea.
16:30. Sari banaketa.
18:30. Kantu bira herrian zehar.
20:30. Afari-merienda gaztetxean.
Ondoren. Dantza festa gaztetxean.

TOLOSA

TITIRIJAI

17:00. Portugaldik etorriko da Marcelo Lafontana taldea, *Peregrinação* lanarekin. Gaztelaniaz izango da, eta 7 urtetik gorakoei zuzendua, Leidor antzokian.
18:00. Argentinatik etorriko da Julia Sigliano taldea, *Los Mundos de Dondo* lanarekin. Gaztelaniaz izango da, eta familia osoari zuzendua, Plaza Berria.
18:30. Kataluniatik etorriko da Centre de Titelles de Lleida taldea, *Kissu* lanarekin. Gaztelaniaz izango da, eta familia osoari zuzendua, Topic zentroan.
20:30. Itxiera ekitaldia izango da, Topic zentroan. Aurtengo ekitaldiaren haur epaimahaiaren saria emango da, eta Centre de Titelles de Lleida taldea, FETEN eta Frantxis Lopez landetxea omenduko dituzte.
BABARRUN JATEA
14:30. Bonberenearen 19. urteurreneko ospakizunen barruan, Babarrun jatea egingo dute, Bonberenean bertan.

HITZALDIA

18:30. *Zer da lodifobia?* hitzaldia, Abastosen, Irune Alfonsoren eskutik, Tolosako Neska Taldeak antolatuta.

ZIZURKIL

ARTISTA TAILERRA

10:00-12:00. Gotzon Huegunek bere teknika ezagutzeko taller praktikoa emango du, Plazida Otaño liburutegian.

IGANDEA ABENDUAK 04

ALTZO

ALTZOKO I. ARGAZKIRALLYA

09:30-14:00. Bi kategoriatan berezita: 16 urtetik beherakoak eta 16 urtetik gorakoak. Lau gai izango dira eta irteeran ezagutaraziko zaizkie. Argazkiak: kamerarekin zein mugikorrekin atera ahal izango dira. 13:00etan amaituko da, eta liburutegian 14:00ak bitarte jasoko dira.

AMASA-VILLABONA

OMENALDIA

12:30. *Egia bide askatasuna amets* omenaldi ekitaldia izango da, Otsabin. Migel eta Mikel Zalakain billabonarrak gogoan.

TOLOSA

TITIRIJAI

12:30. Brasildik etorriko da Trapusteros Teatro taldea, *Los cuentos de otros* lanarekin. Gaztelaniaz izango da, eta familia osoari zuzendua, Euskal Herria plazan.
18:30. Asturiastik etorriko da Teatro Plus taldea, *La verdadera historia de ratoncito Perez* lanarekin. Gaztelaniaz izango da, eta 6 eta 106 urte artekoentzat, Topic zentroan.

MUSIKA

20:00. Zu talde italiarra igoko da oholtxa gainera, eta Euskal Herrian joko duten kontzertu bakarra eskainiko du Bonberenean. Sarrera: 8 euro.

ASTELEHENA ABENDUAK 05

TOLOSA

HIZKUNTZAK AHOZ AHO!

19:00. Hizkuntzak biziberritzeko Estrategiak ikastaroko parte hartzaileekin

mahai ingurua izango da. Ekuador, Mexiko, Benin edota Kolonbiako parte hartzaileak ariko dira: *Zein da hizkuntza hauen egoera? Beraien ametsa? Nola ikusten gaituzte? Zeintzuk dira gure argiak eta itzalak?* Kike Amonarriz eta Jon Sarasua ariko dira dinamizatzen, kultur etxean.

TXULETAREN FESTA

12:00. Haragiaren heldutasuna hitzaldia, Cárnicas Goyako Joseanen eskutik, Zerkausian.
13:00. *Par rila Tolosan* hitzaldia, Casa Julian-eko Pedro Ruiz eta Matias Gorrotxategiren eskutik, Zerkausian.
17:00. Profesionalen arteko pilota partida, Beotibar pilotalekuan.
19:00. Zizka Mizka Koxka gunea alaitzeko, Dj-a.

ZINEMA

TXIMINOEN ERRESUMA

Igandea (17:00).
Haurrentzako zinema euskaraz.
Leidor, Tolosa.



YO, DANIEL BLAKE Larunbata (22:30). **Leidor, Tolosa.**



SULLY

Igandea (19:30 eta 22:00).
Astelehena (20:30).
Ikuslearen eguna.
Leidor, Tolosa.



OZZY

Larunbata (17:00).
Haurrentzako zinema euskaraz.
Igandea (17:00).
Gurea, Amasa-Villabona.



100 METROS

Larunbata (22:00).
Igandea (19:30).
Astelehena (21:00).
Ikuslearen eguna.
Gurea, Amasa-Villabona.



Euskara



ION BELOKI
HARITUZ-EKO KIDEA

*Mihian egiten digu
euskarak kilika
eta gure odolean
hor dabil korrika
baina euskararen eguna
aitzaki jarrita
batzuk gustura daude
behin erabilita
egin euskararekin
egunero zita*



Doinua

Sagutxoak garbaran

Espainiako loteria nazionala

Gure artean opariak egitea ez da kontu berria. Denok egin dugu noizbait erregaluren bat estimatzen dugun jendea estimatzen dugula adierazteko bada ere. Baserrian egindako odolkiak, oporraldietako oroigarriak, amonak egindako jertseak edo Durangoko artisauen azokan erositako larruzko karterak, denak dira ohikoak gure artean.

Urtea amaitzear den egun hauetan berriz, Espainiako loteria nazionala da senideen eta lagunuen artean bitxi preziatua. Askok oparitzen dute dezimoren bat, eta beste askok obligazioz edo, oparitu dielako itzultzen die oparia, norbaitek zerbait oparitzen due-

nean bueltan jasotzeko oparitu izan balu bezala.

Oparia ez dakit lagunari edo Espainiako diru-poltsari nori egiten diogun

baina kortesiazko gurpil-zoro honek euskaldunak behintzat ez gaitu aberastuko. Euskal Herritarrak omen gara Espainiako loteria nazionalan diru gehien gastatzen dugunak, marka da gero! Horko dirua Euskal Herrian geratuko balitz sikiera...

Alde ederra genuke Nafarroako nekazarien produktuekin osatutako Errigora

saskia oparituko bagenu, Nafarroako nekazariak estimatuko digute, euskaltzaleek ere bai eta nola ez, gehien gehiena zestoa jasotzen duenak.

On egin!



OIER
URKOLA AROTZENA
GAZTEA

Euskal Herritarrak omen gara Espainiako loteria nazionalan diru gehien gastatzen dugunak, marka da gero! Horko dirua Euskal Herrian geratuko balitz sikiera...

KOMIKIA OSKARTENA

♥ ZOZO JAUNA ♥

AZTITZA, FUTUROLOGO ETA SENDAGILEA

GOI MAILAKO ESPERIENTZIA ESPARRU GUZTIETAN
Zeure arazoak epe motzean konpondu ditzazke ezin sinetsitako emaitzeekin,
bikotea, galdutako maitasuna, maite duzun pertsona erakarri, negozioetari ere
lagundu zaitzake, lanean, maila guztietako arazoetan, judizialak,
leniaketak, azterketak, jatorri ezezaguneko gaixotasunetan,
inpotentzia, begizkoak, ikarak, espiritu txarrak
beldurra, eta bizitzaren istripu guztien aurrean babesa.
Tabako, alkohola eta drogak berehalaxe uzten laguntzen dizu.
Bere lana serioa da, segurtasun, garantia eta konfidantzarekin.

Harrerak egunero 10etatik 20etara



Urruti bazaude telepatiaren bidez ere lan egiten dut

 000 000 000

Bizikidetza normalizatua

Urtealdia bere amaierara iristen doakigu. Ez da urtearen balantzea, gainera ez naiz inor hori egiteko, baina bai esan nahiko nukeena hauxe da: elkarbizitza oso garrantzizkotzat jotzen dudala, bestalde gauza txiki eta xumeen bitartez eraikitzen dela, eta herriko eta herritarren harremanak estutu eta hurbilago egin beharrean garelara.

Eusko Jaurlaritza berria dugu. Euskal Unibertsitatea ere martxan da eta normalizazio ordenatu eta berri baten oihua zabaldu nahiko nuke. Orain arte, eta batez ere, bai arlo politikoa eta ekonomikoan jendea nazkatuta egonda eta badago horrenbeste ustelkeriaz, kontu faltsuak eta egizaletasun faltaz...

Giza Eskubideetan oinarritutako bakearen eta normalizazioaren garaia etorri zaigu. ETaren bidegabekeria salatu beharra daukat, berdin ETA sostengatu eta justifikatu dutenei ere. Erraza da giza eskubideen alde zaudela esatea eta eskubide horien urraketa zehatzak ez gaitzestea, noski, faltsuker-

ria hutsa dela. Gauza berdina esango nuke zigor-legeak leuntzearen kontra egotea eta poliziaren gehiegikeriak ukatzea... noski, guzti hau ez dela lagungarri gizarte harremanak baketu eta normalizatu daitezen. Horregatik

ezin dut onartu Espainiako estatuaren zikoizkeria kartzela politikari begiratu, ezta ere espetxeratuen sakabaketa eta gizarteratzeari konponbidea jarri gabe.

Zer egin? Ez da erraza adieraztea, baina laburbilduz esango nuke: 1. Inor ez zapaldu inolako gogorkeriaz. 2. Giza Eskubideak errespetatu. 3.

Inor ez torturatu. 4. Komunikabideak ez manipulatu. 5. Gogorkeriaren aitzakian, ideiak ez gaitzetsi. 6. Lan duina eta indartze ekonomikoa sustatu. 7. Herri nortasuna zilegi bideratu eta errespetatu. 8. Pertsonaren duintasuna zaindu eta babestu.

Zerrenda osa daiteke. Jaurlaritza berria ere osatu da. Gustukoa izango litzake asmoetatik ekintzetara pasatzea. Ahalegin horretan bultzada ematen saia gaitzela. Bejondeigula!



JOXE AGUSTIN ARRIETA
EGIGUREN
IRAKASLEA

Erraza da giza eskubideen alde zaudela esatea eta eskubide horien urraketa zehatzak ez gaitzestea, noski, faltsukeria hutsa dela

EGURALDIA



OSTIRALA

Eguraldi lasaiarekin jarraituko dugu. Gutxi asko hego haizea ibiliko zaigu egun guztian zehar. Tenperatura ere atsegina izango da, 16-17 gradutan. Zeruari dagokionean hodei gehiago ikusiko ditugu, batez ere egunaren bi-

garren zatian. Ez dute inolako on-doriorik ekarriko eta ateri eutsiko dio, eta aprobe-txatzeko moduko eguna izango da.



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

LARUNBATA

Egunaren lehen zatian hego hai-zeahul ibiliko da, eta ostarte za-

balak eta zerua nahiko urdin mantendu zaigu. Egurditik aurrera hego ekialdeko haizeak indarra hartuko du, eta eguna bukatzerako nahiko bolada zakarrak joko ditu, eta nahiko estalita geratuko zaigu. Euririk ez da espero, eta tenperatura 16-17 gradutara gerturatu da. Giro goxo eta atsegina.

IGANDEA

Haizea izango da hizpide nagusia. Egun osoan zehar zakar joko du, eta tarteka 100 kilometro ordutara iritsi daiteke. Zeruan, berriz, hegoaldetik hodei asko sartuko da, erdi mailako hodeiekin nahiko estalita geratuko da, eta zaparradaren bat edo beste utzi dezakete. Ez dirudi litro asko utziko dituenik. Hala ere tarteka, eguraldi desatsegina izango dugu. Tenperatura jaitsi egingo da: 12-13°.

ASTELEHENA

Goiz partean hego haizea nahiko zakar ibiliko da. Hodei dezente sartuko da eta nahiko estalita geratuko da. Egurditik aurrera, ordea, ostarteak, baina nahiko hodeitsua izango da. Tenperatura: 12-13°.

OSTIRALA
02



IGANDEA
04



LARUNBATA
03



ASTELEHENA
05



IRAGARKI LABURRAK



LAN ESKAINTZA

Zaintzailea.

Emakume euskaldun bat behar dugu goizetan umeak eskolara eraman eta etxeko lanak egiteko. Zizurkilerako da. Telefonoa: 620442639 (Amaia).



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 telefono zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

FARMAZIAK



ABENDUAK 02, OSTIRALA TOLOSA

Egunekoa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.

ABENDUAK 03, LARUNBATA TOLOSA

Egunekoa. Morant, R. Zabalarreta lorategiak, 1. Telefonoa: 943 67 3849.

ABENDUAK 04, IGANDEA IBARRA

Egunekoa. Lejeune, L. Euskal Herria kalea, 24. Telefonoa: 943 67 32 74.

ABENDUAK 05, ASTELEHENA TOLOSA

Egunekoa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.

**EGUNERO GAUEKO
GUARDIAKO FARMAZIA:**
TOLOSA • Morant, R.
Zabalarreta Lorategiak, 1.
Tel.: 943 67 38 49.

ATARIA IRRATIA



OSTIRALA

09:00. Hamaiketakoa. Gure eskualdeari begirada: Gaurkoan, Tolosa.
10:00. Pasahitza magazina Ibarrik. Iker Ibarluzearen eskutik eguraldia, Tolosaldea Garatzen, Kale Kantoitik Joxemari Iturralderekin eta Tolosako azokari eskainitako tartea.
12:00. Entzuteko Jaiok musika saioa.
16:00. Zebrabidea.
18:00. Goizeko saioak utzitako onena.
20:00. Kantazgora musika saioa. Tolosaldeko musikarien proposamenekin osaturiko saioa.

LARUNBATA

10:00. Asteak utzitako onena.
12:00. Hauspo artean. Ander Malbadik gidatutako trikiti saioa.
Ondoren. Trikitia.
14:00. (H)ari naizela. Imanol Artolak gidatutako bertso saioa.
16:00. Entzuteko Jaiok.
18:00. Entzuteko Jaiok.

IGANDEA

10:00. Asteak utzitako onena.
16:00. Entzuteko Jaiok.
17:00. Kantazgora. Eskualdeko musikarien proposamenak.
18:00. Entzuteko Jaiok.

ASTELEHENA

Goizean zehar. Euskal musika.
12:00. Entzuteko Jaiok musika saioa.
16:00. Zebrabidea.
20:00. Hauspo artean. Ander Malbadik gidatutako trikiti saioa.

ataria
Irratia

GAUR
Saio berezia

Ibarrako plazatik
10:00etatik aurrera
Gerturatu eta parte hartu!

107.6 fm
www.ataria.eus

ORILA

ARROPA DENDA

LIKIDAZIOA

ESKUALDATZEA
ERRETIROAGATIK

Eskolapioetako lorategiak, 3
TOLOSA
605 726 755



ORAIN EKONOMIA

gipuzkoa.eus/ekonomia

Ekonomia **Suspertzeko**
Plana

Gure lurraldeko **ekonomia,**
enplegua eta ongizatea indartzeko.

200M€
2015 > 2019

Industria

Lehen Sektorea

Gizarteratzea

Kultura eta Turismoa

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

PILOTA JAIALDIA

Binaka

Gorka - Merino // Jaka - Tolosa

EPELen Eskuz Binakako Txapelketa
Final-laurdenak

URRUTIKOETXEA - BEROIZ
ALTUNA III - BARRIOLA

Binaka

Dario - Martija // Elordi - Cecilio



aspepelota.com

Abenduak 6, asteartea
17:00etan, Tolosako Beotibarren

gama altuko
2 mō betaurreko
progresibo

197€

www.multioplicasgipuzkoa.com



ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • IRUN • LASARTE • ORDIZIA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitsu optikoetan



Atarikideentzat **3 sarrera pare** ditugu



aspepelota.com

- Nerea Zabalo (Ibarra)
- Bittor Uzkudun (Anoeta)
- Iker Telletxea (Ibarra)

Abenduak 6, asteartea
17:00etan • Tolosako Beotibarren

Sarrerak lehiatilan bertan

PILOTA JAIALDIA

Binaka

Gorka - Merino // Jaka - Tolosa

EPELen Eskuz Binakako Txapelketa
Final-laurdenak

**URRUTIKOETXEA - BEROIZ
ALTUNA III - BARRIOLA**

Binaka

Dario - Martija // Elordi - Cecilio

ABENDUAK 6
21:30ean



Ikusi **ataria.eus** webgunean



GAUR IREKIKO DITU ATEAK

Euskaldunon Egunkariaren sorrerari buruzko dokumentala

Hamaika TB-k ekoiztua

Oparitarako ideiarik behar?



atarikide bazara,

oparitu izeaiozu urtebeteko harpidetza

%15eko deskontuarekin (62€) zuk nahi duzunari

eta **jaso zuzeneko oparia**

Marques de Bergara kaxa bat

elosegi

ARDOTEGIAK



Polig., 201- Harizti3
20212 OLABERRIA
Tel.: 943 88 09 79



Informa zaitez:
943 65 56 95 edo atarikide@ataria.eus

